

Nafarrokaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko irailaren 23a / IV. urtea / 145. zenbakia

Nafarroako Kondairaren Hirugarren Batzarre Orokorra ospatu da aste honetan zehar Nafarroako Museoan, Ikerketa Historikoen Elkarteak antolatuta.

'Nafarroa eta Europa' lemapean, berrehundik gora historiarik aurkeztu dituzte beren txosten eta idazkiak lau egun hauetan, beti ere ildo nagusiarekiko loturari eutsiz. Hirugarren Batzarre honekin hasieran bilatzen zen helbura ondo bideratuta dagoela diote antolatzaileek: hots, Nafarroako historiografiaren egoera aztertu eta bide eta helburu berriak markatzea, ikerle guztien arteko topaguneak sortzeaz gain. Iragana aztertzen duen zientzia honekin loturak dituzten asko biziki poztuko dira helburuak betetzen badira, aspaldian baitzegoen kezka Nafarroan aztertzen zen historiaren gainean erabateko nagusitasuna zuela Nafarroako Unibertsitate pribatuak. Museo batean zegoela, alegia, ekarpen berririk gabe.

Historia, Museoan

Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Irakurketa positiboa

Bai, badakit pasatako une larria ez dela txantxetan hartu behar, badakit eta euskaltzaleek jasandako iraina ez dela errez ahazteko horietakoa. Baina, hala ere, Beran gertaturikoak gogoeta positiboa, nolabait sor dezake, inozoa behar bada...

Gurekiko horrenbeste amorrurru erabili ohi dutenek ez dute orain arteko Nafarroa Oinez ugarietan parterik hartu. Ikastolak laguntzeko, euskara bultzatzeko, Nafarroa Oinez sortu zenean, gure hizkuntzaren egoera etzen inolaz ere pozgarri. Urteak joan, urteak etorri, gauzak pixkanaka, baina zertxobait hobetu dira. Euskarak defendatzaileak bildu ditu geroz eta gehiago. Eta, hara, orain 80.000 lagun egun bakar batetan elkartzen ditueanean, amorrurru biziz erasotzen dituzte haur, zahar eta gazte euskaltzaleak, inongo bereizketarik egin gabe, gutxi batzuek harrika eta irainka hasi ondoren. Ez daiteke esan zapalketa selektiboa egin zutenik. Bertan zeuden milaka ta milaka euskaltzaleen artean inor etzen libratu.

Benetan, horrenbeste zalaparta sortu behar zen asko etzirenak baretzeko? Zirkuitoa derrigorrezkoa zen horrenbeste patrol jendartean? Zergaitik erasotu dituzte hain zabarkari euskararen lagunak?

Esaldi zahar batek dio Zaunkaka ari dira, beraz harrapaladan goaz zaldi gainean.

Euskarak jasotzen duen laguntza nabarmena kezkagarria ari omen zaie gertatzen gure hizkuntza maite ez dutezentzat.

Gainera inor gutxi saiatzen da pobrea lapurtzen.



ERAKUSKETAK



Patxi Buldain, Jose Urdin, Naxo Barberena, Koldo Agarraberes, Arturo Navaz, Pablo Juarros, Oskar Paternain eta Carlos Servet artisten 'Defiguracion' izeneko erakusketa zabalik dago Irurtzungo Kultur Etxean. Udalak antolatutik, hilaren 26a arte iraunen du.

Maite Unzurrunzaga margolariaren lanak ikusgai daude Iruñean, bertako Aurrezki Kutxa Municipalak Rodezno Konte kalean duen aretoan. Irailaren 25a arte iraunen du zabalik eta ordutegia hauxe da: lan egunetan, 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan 12.30etatik 14.00etara.

ANTZERKIA



Melody Sisters antzerki taldeak 'The dream of Marilyn' izeneko obra taularatuko du bihar larunbata, hilak 24, Arrizabalagan. 'Udazkeneko Bira' kanpainaren barruan, gaeko 21.00etan hasiko da, herriko pilotalekuan.

'**El pequeño príncipe**' izeneko antzezlanak aurkeztuko du Sambhu Teatro taldeak larunbat honetan Orotz-Betelun. Arratsaldeko 20.30etan hasiko da, herriko pilotalekuan.

Kilkarrak antzerki taldeak 'Los otros gnomos' izeneko obra plazaratuko du igande honetan, hilak 25, Artikan. Herriko pilotalekuan izanen da, arratsaldeko 20.00etatik aurrera.

BERTSO SAIOAK



Jon Sarasua eta Xabier Amuriza bertsolariak ariko dira bihar larunbata, irailak 24, Iturengo Ostatuan. Ordu zehatzik ez dute jarri, baina bazkalostean izanen da.

Angel Mari Peñagarikano, Jon Sarasua, Jokin Sorozabal, Iñaki Murua, Bittor Elizagoien eta Mikel Mendizabal bertsolarien saioa izanen da igande honetan, hilak 25, Sunbillan. IKA euskaltegiak antolatutik, arratsaldeko 19.30etan hasiko da, pilotalekuan. Patxi Larretxea ariko da gaijartzaile moduan.

Sebastian Lizaso eta Mikel Mendizabal bertsolarien saioa izanen da heldu den asteoste egunetan, hilak 29, Uitzin. Bertso-afari moduan antolatutik, gaueko 21.00etan hasiko da, herriko Ostatuan.

BESTELAKOAK



Patagoniari buruzko proiektioa izanen da heldu den ostegunetan, hilak 29, Olaztikio Kasinoan. Sakanako Kultur Zikloaren barruan, arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

NAFAR KRONIKA

GAIZKA ARANGUREN

Berakoari buruz datu gehiago eta galdezka

Joan den igandean ez nintzen Beran izan. Ezin nuelako, noski. Hala ere, irakurri eta entzundakoaren arabera —eta denetarik irakurri eta entzun ahal izan dut—, gertatutakoaren irudipena egin daukat. Eraso militar eta ebasketei buruzko informazio berria eskaintzerik ez dut beraz. Baina badut, ordea, lehenagotik jakindako zenbait oharren berri emateko aukera (Adiskideak hortik zehar barreiatuta ukaitzak ematen didan aukera).

Duela bi hilabete inguru Beran ziren nire bi lagun, horietako batek gainera han egiten du lan. Biek kontatu zidaten pasadizoa argigarria izan daiteke; edo osagarria berderen:

Asteburua zen (larunbata, oker ez banaiz). Berako Guardia Zibilaren komisaldegia inguruan. Andoni eta Maialen tabernaz taberna zebiltzan eta une hartan komisaldegi aitzinetik pasa beharra zuten hurrengo tabernarako bidean. (Edaten bai, Kintana jauna, eta behar bada laztanketa lizunak egiten karrikan). Lagun ba-

tzuekin topo egin eta eremu hartan ibiltzeari utzi eta kalakan ari ziren. Bapatean, komisaldegi ondoko apartamendu batzuetatik oihuak entzun ziren. Harat begira jarri eta berehala, solaskideek jakinarazi zuten apartamendu haietan Goardia Zibilaren familiak bizi

apurtzen ari zela, edozerren aurka egiten zuela... beldur zela. Han goiti zegoena, apartamendukoa, Goardia Zibileko kide zen. Ziztu bizian haietako hiru eskaileretan, martxetan gora abiatu ziren. Minutu baten buruan isiltasuna nagusitu zen berriro.

Andoni eta Maialenen solaskideek bi hitz ahozkatu zituzten: 'Iparreko Sindromea'. (Hego Euskal Herian 'lanean' ari diren uniformatu espainarren ohizko gaisotasun psikikoa).

Horrarte, hausnarketarako aintzindaria. Igandekoaren ondoren, hara galderak: Nondik ote da sortua, uniformeak ikusten ditugunean, euskaldunok pairatzen dugun 'Sindromea'? Zergatik dator Belloch ministroarekin bat Xabier Kintana euskaltzaina? (ikus. EUSKALDUN EGUNKARIA, 1994-9-20) Zertara datorkigu bizkaitarra Nafarroako abertzaletasunaren ahuleziaz malkotan blai? Noizdanik idazten du 'lege eta ordena' ideologia faxistaren estiloaz Xabier Kintana.



zirela. Oihuez gain, edonolako arrabotsa entzun zitekeen orai. Tramankulu puskatuak, leihar hautsiak, izugarriko hondamendia gertatzen ari zela adierazten zuten zaratek. Minutu pare baten ondoren, apartamendu hartatik ateratako emakumezko bat eta bere seme-alabak karrikara irten ziren. Negar zotinka. Komisaldegitik ateratako zenbait 'benemerito-k' gertatzen ari zena buruz galdegin zioten emakumeari eta honek malko artean senarra omen zenaren izena ahozkatu zuen: Dana

ASTEKO PERTSONAIK



Juan Cruz Alli
Nafarroako lehendakaria

Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuako lehendakariak zuzentzat jo du Goardia Zibilaren ekintza, Beran, Nafarroa Oinezen bukaeran gertatutako istilu larrietan. Bere ustez, «Goardia Zibilak hartutako neurriak oso beharrezkoak» ziren, «behin eta berriro elkarbizitza hondatu nahi dutenen jarrera ikusita». Gizarteak «halako jendea arbuia» behar duela gaineratu zuen Juan Cruz Alli lehendakariak. Labiaga Ikastola, Berako Udala, Nafarroako Ikastolen Elkarte eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarte kideek, ordea, «Goardia Zibilaren etengabeko eta ezohizko agerpena» salatu prentsaren aurrean eta Berako Goardia Zibilaren postuko komandantea den Moreno jauna kargutik kentzeko eskatu dute.



Pedro Delgado
Txirrindularia

Perico Delgado txirrindulari segoviarra izan zen astelehenean Iruñeko karriketan izan zen lasterketaren izarra, Migel Indurainekin batera, jakina. Segoviako txirrindulariak agur esaten zion txirrindularitzari, eta agur esan zion agurtu zuen lurraldean, Nafarroan hain zuzen ere. Azken urteotako txirrindularirik preziatuenetakoak onartu egin zuen Nafarroarekiko zuen zorra, «hemen egin dudalako nere bizitza profesional ia osoa». Tourra izan da Delgadoaren garaipenik garrantzitsuenak, baina ezin ahaztu irabazitako Vuelta edo hainbat mendietan erakutsitako nagusitasuna. Jende askok nahiko luke berriro ikusi hurrengo urtean, baina utzi egingo duela ziurtatu du behin eta berriro.

AHAZTU GABE!



ZAKUR LEHIAKETA

Igantziako XV. Artzai Zakur Txapelketa ospatuko da igande honetan, irailak 25, Meaka-Gaineko soroetan, arratsaldeko 16.30etatik aurrera. Jarraipen handia du froga honek, Euskal Herriko beste eskualde batzuetan bezala, eta aurtengoan zortzi txakurrek hartuko dute parte: Kubino (Uharteko Araki Igo frogan irabazi zuena) eta Rubi, Felix Irigoien amaiurtarraren txakurrak; Lagun, Amaiurko Patxi Etxeberriarena; Bat, Xabier Urien artzaiarena; Xarpa, Migel Garaiarrena; Linda, Luis Mari Garaiarrena; Zara, Pedro Mari Oskariz Lekaroztarrarena; eta Labri, Jorge Oteiza artzainarena. Zortzi txakur hauek, hiru froga egin beharko dituzte. Lehendabiziko frogan, artzaiak txakurrak ibilbide batean zehar gidatu beharko dituzte. Bigarrenean, aldiz, zelaian dauden hiru hesietatik bazterreko bi hesietatik batek pasa beharko dute txakurrek artalde osoa. Hirugarren frogan, txakurrek erdiko hesian sartu beharko dituzte ardiak.

JENERO XUMEKOAK

Gaztaroa

Ene ama laztana, ezin dut ez oihala brodatu ez informatikan aritu, mutil gazte bat baitut bihoztean.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...

Aldapako San Fermin jaiak

P.U. / IRUÑEA

Aldapako San Fermin jaietako suziria botako da gaur eguerdian, eta hortik aurrera askoren ustetan Sanfermin txikiak diren festa hauen hasiera izango da. Hiru egunetan, Navarrieriako auzoko jaiak uda bukatu dela jakin nahi ez dutenaren azken errekurtoa izango dira. Hori biguntzeko, 'Riau-riau' eta guzti prestatu dute peñek larunbaterako. Arratsaldeko 18.30etan aterako da udaletxe plazatik, eta Jarauta zeharkatu ondoren, San Lorenzon amaituko da.

Aurten eztabaida batek zizeldu ditu festak: zezenen ingurukoak, hain zuzen ere. Azkenean, ez da entzierrorik izango, eta bai zezenketa bat, igandean. Hala ere, eztabaidak ez du onik ekarri, eta San Fermin peñak, kasu, dagoeneko iragarri du ez duela parte hartuko festa hauetan. Prentsa ohar batean azaldu duenez, Iru-



Peñak berriro aterako dira kaleetara.

ñeko Udalak erakutsitako interes eskasa izan da arrazoi nagusia.

Hala ere, ez da dudarik izango animazio handia eta zeregin franko izango dela jaietan, eta horren adibide garbia da Aldezar taldeak, El Bullicio Pamplones taldeak eta Alde Zaharreko Auzo Elkarteak osatu duten egitaraua. Gaur bertan, lehen entzierra txikia izango da arratsaldeko zortzietan. Carmen kaletik aterako da, eta Navarrieria eta Curia kaleak zeharkatu ondoren Carmenera itzuliko da berriro. 20.30etan Larrain Dantza izanen da Navarrieriako Plazan, eta 22.00etan zezen suzkoa Aldapa kaleetik. Bukatzeko *salsa* emanaldia izango da Navarrieriako Plazan.

Bestalde, Gaztetxeak ere bere festak antolatu ditu, eta bihar goizean salda izango da bertan, eta arratsaldean antzerkia, Bilboko 'Mandragora' taldearekin. Igandean herri kirola eta herri bazkaria izango da.

Barakaldoko txapeldunari eskerrik beroenak

Berako Nafarroa Oinez-en gertatu zena gertatu zelako ikastolen elkartetik, alderdi abertzaleetatik eta beste hainbat lekutatik Ruiz de Alegria gobernadore zibilaren kontra gogor jotzen ari diren honetan, txapeldun barakaldar —gure alkate txit agurgarriak esanen lukeen legez «bizkaitar, zehatzago esanda»— horren alde egin nahi dut nik. Izan ere, berari esker aurten Nafarroa Oinez inoiz baino gehiago gozatu ahal izan nuen.

Koadrilakook inoiz ez dugu Nafarroa Oinez bezperan goiz oheratzerik lortzen. Ezaguna da haragiaren ahulezia, eta haragizkoak izanik, ahulak gara gu. Behin eta berriz azkenaren garagardoa edan ostean, urtero gauaren hondarreak heldzen gara etxera. Horren ondorioz bihamunen Nafarroa Oinez-era arratsaldeko hiruretan heldzen ohi gara, oso goiz jota.

Aurten, ordea, Ruiz de Alegriari esker berehala sartu ginen maindireen artean. Haren mutilek, kasko txuri eta uniforme urdina

Salbatore

Bortuaren eguna Salbatoren

LUTXI FOURCADE / BAIONA

Irailaren hirugarren igandean iragan da aurten ere Bortuaren eguna Salbatoren, Mendibeko Iratiko bidean, zazpigarren aldikotz. Bortuaren eguna sortu zen duela hamabost urte; lehen urteetan lekuz aldatzen bazen ere, mendi xoko horretan iragan ziren azken elkarretaratzeak.

Nahiz eta aro txarra izan, mendizaleek diote abiapena eman goizeko zortzi t'erdietan Mendibeleko kaxkora joateko. Bi ibilbide proposatu zaizkie: bat lau orenekoa, Salbatoretik haste, bestea bi orenez egiteko gisakoa Burdinkurutzetatik joanez. Hauek goizago etorri ziren aperitifera Garaziko trikitilarien entzuteko eta Garaziko ikastolako burasok erre lehen taloak dastatzeko.

Soinua ez da eskas izan arratsalde guztian, gaitekin eta txalapartarekin, 'Irrintzina' taldekoek jauziak eman dituztela. Larrañeko dantzariak beraien xülilari eta tabalariak ekarri zituzten, Salbatore izan dadin lehen bezala, zuberotar eta baxenabartarren topagune.

Kantari franko entzuteko parada izan da, bertan agertu baitira Etxarren ahizpak, Ihdoidi eta Xalbador, Etxemendi, Amaia Riouspeyrous, Kolore taldea, Larrañeko kantariak, baita Euskal Kantu Txapelketan parte hartu zuten haur batzuk ere. Tokiko bertsolariak ere gomituak izan



Baxenabartarrak eta zuberotarrak bildu ziren Salbatoren.

ziren, gai pare bati ihardokitzeko binazka edo hirunazka.

Mendiak eta bortuak, lurrik orokorkiagoko ikusiz, borontate edo nahikaria gutizi edo gose berrien erdian kausitzen direlarik, hitzari bere lekua atxikia izan zaio betidanik egun horretan, geroko oreka atzemateko menturan. Elkarteek ere bere lekua zeukaten; besteak beste Sagaritzeak dastarazi du hemengo sagarrekin egin sagardo berri baten prototipoa, bakoitzaren kritiken entzuteko esperantzan.

Kaperaren giltza uzten baitziren antolatzaileei Mendibeko

jaun erretoarak, erakusketa antolatu zuten bortuaz. Kanpoan zegoen aro txarra ahanzteko, bi bideo eman dira aratsaldean: bat Aldudeko haraneko biziak, eta bestea, mendien bestalderdian, Itoitzen, egiten edo egin gogo duten urtegi ikaragarriak.

Ekitaldi hau antolatzen du urtero Donibane-Garaziko Haizoblia elkarteak buruilaren hirugarren igandean. «Bortuan euskal besta antolatzeko gogoa, mendi jendeztatu baten apustua» zela jaiaren helburua azaldu zion EGUNKARIAI Antton Luku, elkarteke ordezkariak, bereziki

kontuan hartuz artzainen eta mendiaren arazoa. Bideoek, aldiz, «mendiak gerizatzeko eta tokiko mozkinen promozioaren beharra» erakusteko jarri zirela gehitu zuen Luku.

Tokiko jendea, Lekunberri, Etxerenzubi edo Mendibeko biztanleak biltzen ditu ekitaldiak. Mendizale, laborari edo artzainen hitzordua da, «nahiz eta anitzek itzuliñoa egiten duten aratsaldez, Salbatore begira-lekua baita eta haien bortua baita», azpimarratu zuen Luku. Baina aurten aro txarra zela eta mendian, «artzain gutti etorri da, haraneko jende gehiago etorri bada ere», adierazi zuen. Giro xoragarrian bukatu zela eguna gehitu zuen, urtero bezala besta giroak amaitzen baitu bortuaren jaiak.



janzten duten horiek, goizean goiz bidali gintuzten etxera, ilunabarrean kasik, eta bero-bero gainera. Mutikoteok, Kaldereria karrikan goiti eta behiti, ohera joan nahi ez zutenen gibeletik korrika eman zuten gau guztia. Hori da hori euskalzaletasun hungigarria!

Ruiz de Alegriari esker, beraz, joan den igandean goizeko hamarretarako Beran ginen. Esan bezala, baina, ahulak gara gu, eta Berako aldapa biziak ikusi bezain pronto, ibilbideaz paso egitea eta zuzen-zuzenean lehen zonaldeko txosnetarantz jotzea erabaki genuen. Jai eguna burutzear zegoelarik, ordurako ibilbidea ez genuela eginen ziurtzat jo zitekeenean, Ruiz de Alegriak beste mutiko batzuk bidali zituen —uniforme berdea daramatenak— eta horiek —gure onerako, jakina— ibilbidea ziztu bizian egitera behartu gintuzten. Hortxe ibili ginen, mendian goiti-goiti ahuntza bezala izokina bezala baino gehiago. Gauzak horrela, hona hemen nire eskerrik beroenak Barakaldoko txapeldunarentzat, merezi ditu eta.

EZ ZAITEZ ASPERTU INGELESA IKASTEN



HITZ EGIN ETA ONDO PASA
Instituto Promoción Estudios Sociales
IPES
ELKARTEA
San Miguel Kalea z-8 2. esk.
Tel.: 22 59 91

Aste honetan zehar egin da Iruñean Nafarroako Kondairari buruzko Hirugarren Batzar Orokorra, Ikerketa Historikoe Elkarteak antolatuta, eta 'Nafarroa eta Europa' lemarekin. 200 historilari inguru bildu dira Nafarroako Museoan, gu lurraldeak historian zehar Europarekin izan dituen harremanak aztertu, historiografiaren norabide berriak aurkeztu eta ikertzaile bakoitzak azken urteotan egindako lanak azaltzeko.

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Historia behin eta berriro aztertzea osasungarria dela aipatu izan da beti. Gaur egun garena eta sortu duguna zergatik eta zertarako den jakiteak bihar-ko atek zabal diezazkiguke, eta historiak merezi duen garrantzia oraindik eskuratu ez badu ere, beste zientzia arlo zenbaitekin dituen harreman gero eta ugariagoak zabaltzen ari dira eragin-esparrua. Baina badu sakoneko beste arazo bat iragana aztertzen duen zientzia honek: inguruari erreparatu gabe lur puska bat bakarrik aztertzen duela maiz alegia. Aste honetan zehar Nafarroako Museoan egin den Nafarroako Kondairari buruzko Hirugarren Batzar Orokorra, 'Nafarroa eta Europa' lemapean, akats hori zuzentzen ahalegintzeko borondatea izan du hastehastetik, Ignacio Arana Batzorde Antolatzaileko buruak azaldu duenez. «Gaur egungo historiografiaren bide garrantzitsuenetakoa historia konparatua da, hau da, aldi bakoitzean lurralde iker-tuan eta inguruko alderdietan gertatzen dena aztertzea, ondorioak atera ahal izateko. Hori egin nahi izan dugu Batzar honekin Europa eta Nafarroako his-

toria parekatuz, bide batez Nafarroako historilariak bide hau har dezaten».

Ez da aski garbia Nafarroako historiografiaren egoera. Askotan aipatu izan da inon baino lerratuago dagoela, nork bere errotako urez hornitzeko helburua besterik ez dagoela, eta horretan zeresan handia izan duela historia fakultate bakarria izateak. Horrela, Euskal Herriko lurraldeen artean historian zehar presentzia garrantzitsuena izan duena «historiarik gabe» gelditzen ari zela aipatu zuen duela gutxi historilari sonatu batek.

Arazo larriena, kritiko diren guztien arabera, Nafarroako Unibertsitate pribatuaren nagu-

Nafarroako historiografia inon baino lerratuago dagoela aipatu eta nabarmendu izan da behin baino gehiagotan.

sitasuna izan da. Bertan markatu dira irizpideak, zehaztu dira beharrak eta nagusitu dira uste eta aburuak. 'Eskola paranoikoa' izendatu zitzaion aspaldian. Nafarroatik kanpo lanean ari diren historilari batzuk egoerari buelta ematen ahalegindu dira frankotan, baina horrela beti ezinezkoa izan da proiektu orokorrak sortzea eta lehentasunak markatzea.

Hain zuzen ere eskola nagusi horretatik kanpo zeudenek sortu zuten duela zortzi urte Geronimo de Uztaritz Institutua. Hasieran jende guztia bildu nahian, berehala bereizi ziren taldeak, eta hortik sortu zen Nafarroako Ikerketa Historikoen Elkarte, aste honetako Batzar Orokorren antolatzailea.

PROIEKTU INTELEKTUALA SENDOTU

Bere aurkezpenean, 1986an hasi zen proiektua gogorarazi zuen Ignacio Aranak, eta hirugarren batzar honek orduan hasitako bidea sendotu egingo zuela azpimarratu. «1986an egin genuen lehen Batzarrean historiografiaren

puntu gorenean geunden, eta orduan arloaren egoera orokorrari buruzko azterketa egiteko garaia zela iruditu zitzaigun. Hortik hartuko genituen gero hurrengo ikerketarako norabideak». Ikerketa Historikoen Elkartearen presidentearen ustetan, lehen bidea eginga dago, eta hurrengo urteetarako oinarriak paratu dira. «Horrelako biltzarrak informazioa trukatzeko oso aproposak dira, aurrerantzean ikerketa bideak oraindik gehiago zehazteko».


'Nafarroa eta Europa' gaia garaia agintzen zuen, baina horretaz gain, arrazoi profesionala ere bazegoela dio Aranazek. «Gai honen bidez historiaren di-

Aranaren ustez, Europa eta Nafarroa lema hartuta, historiaren disezioa egin daiteke, gai garrantzitsuak jorratzeko.

sezioa egin daiteke, gero gai garrantzitsuak jorratzeko, hutsu-neak azpimarratzeko eta historiografia nondik jotzen ari den jakin ahal izateko». Halaber, batzarraren aurkezpenean, lurralde bakoitzak bere inguruarekin dituen harremanak aztertzea oso garrantzitsua zela azpimarratu zuen, «ez bakarrik lurraldekako banaketa osagarria delako zibilizazio europarraren batasunarekin, baina oso beharrezkoa delako Europako orainaz eta geroaz lurraldeka pentsatzea».

Aranaren ustetan, bestalde, ez da egia Nafarroa historiari gabe gelditzen ari dela. «Baieztapen hori ez zait oso zuzena iruditzen. Egun Nafarroako historiari buruz argitaratzen ari diren lanak maila handikoak dira, Nafarroa bere osotasunean eta bere zabal-tasunean jorratzen baitute, eta zabalpen handikoak dira. Are gehiago, esango nuke beste lurraldeetan baino maila handi-goko lanak ditugula argitaratuta hemen».

Aste osoan zehar 200 historilari inguru egon dira Iruñean, eta gaur egingo dira amaiera ekitaldiak; horien artean bereziki azpimarragarria da Erriberrin gaurko joera metodologikoei buruz antolatu den mahaingurua.



Bardeetako historiari lotutako erakusketa bat paratu da Nafarroako Museoan Batzarre hau dela eta.


Lanean ere euskaraz

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Nafarroako CCOO, CGT, ELA, ESK, LAB, LSB eta UGT sindikatuek 'Euskara lanean' kanpaina aurkeztu zuten asteartean, 'Anima zaitetz, erraza da' lelopean. AEK eta Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikako Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin, lanean ere, gainontzeko eremuetan bezala, euskararen erabilera bultzatzea du xede kanpaina honek. Helburua betetzeko asmoz, 2 milioiko diru laguntza eman du Hizkuntza Politikak, iaz baino zertxobait gutxiago, eta AEK-k, berriz, kanpainaren alde tekniko hartu du bere gain. Nafarroan bezala, iaz ere halako kanpaina bat jarri zen martxan Araban.

Aurtengoa laugarren kanpaina izango da eta aurrekoen aldean berrikuntza bi ekarri ditu. Alde batetik, eskaintza zabaldu egin dute sindikatuek. Horrela, informazioa zabaldu eta ugaritu dute eta Nafarroan matrikulatzen ahal diren ikastetxe publiko nahiz pribatu guztien berri emango diete langileei. Halaber, Batzorde Sindikala Hezkuntza Departamentuarekin harremanetan dago Helduen Oinarrizko Irakaskuntzako ikastetxeetan euskarazko eskola graduatua eskain dezaten. Bestalde, kanpainaren eragin eremua ere handitu egin dute eta beste urteetan baino enpresa gehiagotara ailegatuko da aurtengo kanpaina.

Juanjo Larraza ELAko kideak azaldu duenez, 'Euskara Lanean' kanpainaz gain, beste alor batzuk ere landu ditu Batzorde Sindikalak, hizkuntz normal-kuntzarekin zerikusia dutenak eta lan munduari zuzenean eragiten diotenak. «Besteak beste, urrats batzuk eman nahi izan dira



Nafarroako sindikatu guztiek sinatu dute akordioa.

plataforma erreibindikatiboetan euskararen eskakizuna sar dadin negoziazio kolektiboan».

Bai sindikatuek bai AEK-k azaldu dutenez, zaila da iragan urteetan egindako kanpainei buruzko datu zehatzak ematea, langile askok lantegian informazioa jaso baina ohizko taldeetan eman baitute izena. Hala ere, iaz, 200 langile inguruk parte hartu zuten euskara ikasteko taldeetan.

Eskaintza eta eragin eremua zabaltzea, hala ere, ez dira berrikuntza bakarrak izan aurtengo kanpaina. Izan ere, hasi berri den kanpaina honetan, sentsibilizazioa izango da helbururik

funtsezkoena, eta ez hainbeste, ordea, langileen izen ematea euskara ikasteko. Eta urtetik urtera, «sentsibilizazio hau areagotuz doa langileen artean eta euskara gero eta gertuago dagoen gauzatzen jotzen dute», Larrazak dioenez.

Bide honetan, erran bezala, negoziazio kolektiboan euskararena beste erreibindikatiboz bat izatea lortu dute sindikatuek. Hala ere, «beste erreibindikatiboz batzuk zailak badira, are zailagoa euskarari dagokiona». ELAkoaren aburuz, enpresariak ez dute onartzen, euskararen gaia ez dute bere egiten eta kanpo geratzen dira. Sindikatuek jarrera hau sa-

latu dute, Larrazaren hitzetan «enpresariak giza konpromezua hartzea guztiz beharrezkoa baita». Beraz, euskararen aldeko kanpaina hau ahal duten neurrian zabaltzen saiatzen dira sindikatuek, «nahiz eta askotan paretaren kontra jo». Lau urteko lana egin dute orain arte sindikatuek euskara lan munduan bultzatu nahian, baina ELA sindikatuko kidearen arabera giroa ez da oraindik egokiena eta gauza asko dago egiteko. «Hala ere, enpresariengandik orain arte erakutsitakoa baino sentsibilitate handiagoa espero dugu, gizartean hainbesteko oihartzuna duen gaitatean».

AEK-REN EKIMENEZ SORTUA Orain dela lau urte sortu zen 'Euskara Lanean' kanpaina AEKren eskutik. Talde homogenoen inguruan azterketak egin eta gero, lan munduan, jendea euskarara hurbiltzeko esparru zabalagoa bazegoela ikusi zuten. Hasierako asmoa, langileen artean euskara ikasteko taldeak osatzea izan zen, beti ere ordu-tegiak eta bestelakoak euren beharretara egokituz. Baina asmo hau egia bihurtzeko arazoak sortu ziren. Izan ere, batzuek, «lan

«Langileen artean sentsibilizazioa piztea da garrantzitsuena, horrela euskara ikastera animatu daitezten».

orduetan alboan zituztenekin ez zuten talderik osatu nahi izan eta alderantziz, lantegi txikietan, oso zaila zen leku bereko langileen artean taldeak osatzea», Elena Etxalar AEK-ko kideak azaldu duenez. Hori dela eta, taldeka ezezik, bakarka ere izena emateko aukera izan zen. Batzuek, ohizko taldeetan ikasi zuten.

AEK-k ere, sindikatuek bezala, sentsibilizazioaren beharra azpimarratu du. «Horregatik, aurtengo kanpaina sentsibilizazio kanpaina izango da», dio Etxalarrek. «Hasierako esperimendatze nahi hura baztertu eta langileak euskara ikastera animatzea da gure helburua. Izan ere, AEK-ren ustez, guztion inplikazioari esker aterako da aurrera euskara, bakoitzak bere esparrutik eraginez».

EUSKARA LANEAN



ANIMA ZAITEZ * ERREZA DA ANIMATE * ES FACIL

ANTOLATZAILEAK: CC.00. GCT ELA ESK-CUIS LAB LSB-USO UGT.

LAGUNTZAILEAK:

Nafarroako Gobernua




- aek**
- ARAITZ, Herri Etxea, Arribe.
 - ULTZAMA, Eskola Zaharrak, Iraizotz, ☎ 30 65 03.
 - ZARAITZU, Eskola Zaharrak, Otsagi.
 - AGOITZALDEA, Ikastola, Agoitz, ☎ 33 40 70.
 - BAZTAN, Ikastola, Elizondo, ☎ 45 24 71.
 - LIZARRALDEA, «Beinat Etxepare» euskaltegia, kale Nagusia 40, ☎ 55 24 06.
 - SAKANA, Kultur Etxea, Altsasu, ☎ 46 82 58.
 - TAFALLALDEA, Kultur Etxea, Tafalla, ☎ 75 51 95.
 - ERRIBERA, «Harrigarai» euskaltegia, Herrerias k/ 63-1, Tuter, ☎ 82 58 61.
 - AEZKOA, Euskaltegia, Garralda, ☎ 76 40 87.
 - NAFARROAKO AEK, Jarauta k/ 2-1, ezkerre, Iruña, ☎ 22 02 13.
 - IRUÑERRIA (BULEGOA), Konpania k/ 25-2, ☎ 21 27 01.

- ika**
- LEITZA, Udaletxea, ☎ 61 07 76.
 - GOIZUETA, ☎ 61 07 76.
 - LARRAUN, ☎ 61 07 76.
 - DONEZTEBE, Mendaurren barnetegia, Malerreka, ☎ 45 15 55.
 - LESAKA, Matxinbeltzenea, Bertzirak (Bera, Lesaka, Arantza, Igantzi, Etxalar), ☎ 63 77 96.

- HIZKUNTZ ESKOLA. IRUÑA, ☎ 22 22 03.
- TUTERA, ☎ 41 12 20.
- CIE. AZPILAGAÑA, ☎ 23 15 54.

- ARROSADIA, Joaquín Larregla k/ ☎ 24 34 66.
- BERRIOZAR (AUZOLAR), Artekale k/ ☎ 30 06 02.
- DONIBANE, Virgen de Oskia k/ (Auzo Elkarte), ☎ 21 27 01.
- IRUNTZU, ☎ 13 27 60.
- IRUÑEZAR, Kale Nagusia 28-1. esk. ☎ 21 27 01.
- ITURRAMA, Iturrama k/ 43 A (Amairu Ikastola), ☎ 21 27 01.
- NOAIN, (Kultur Etxea), ☎ 21 27 01.
- OLTZA, ☎ 21 27 01.
- TXANTREA, Monreal k/ 3-5, ☎ 12 97 56.
- XALBADOR, Atarrabia Etorbidea 27-2, ☎ 12 74 08.
- ZIZUR (IPURTARGI), (Igerilekuak), ☎ 18 23 59.
- MENDILLORRI, ☎ 21 27 01.

- BARAÑAIN, Sahats euskaltegia, Udal Enparantza, ☎ 17 68 68.
- ATARRABIA, Kultur Etxea, k/ Nagusia, ☎ 13 09 98.
- IRUÑA, Arturo Kanpion, Komedias 14-4, ☎ 22 24 46.
- MENDILLORRI, ☎ 22 24 46.
- BIANA, ☎ (941) 12 10 55 / 11 00 87.
- MENDEBALDEA, ☎ 17 68 68



Iruñeko Hiria IV. Xake Torneo Irekiko 4. ihardunaldiko partida, 1933ko abenduaren 30ean jokatu.

Lucas Cisneros, 2.355 ELOkoa (Espainia)—Ander Gamez, 2.135 ELOkoa (Euskal Herria).

1.d4,Zf6; 2.Zf3,g6; 3.c4,Ag7; 4.Zc3,0-0; 5.g3,d6; 6.Ag2,Zc6; 7.0-0,a6; 8.h3,Gb8; 9.a4,Za5; 10.b3,Zd7; 11.Ad2,b6; 12.e4,e5; 13.Ag5,f6; 14.Ae3,Eh8; 15.Gb1,Ab7; 16.d5,Ac8; 17.Dc2,Zb7; 18.Zh2,Gf7; 19.f4,De7; 20.f5,a5; 21.Af3,dZ-c5; 22.Gf2,Ad7; 23.g6. Ez da unerik egokiena. Irekiko den zuloa arrisku suago izanen da txurientzat. 23...g6; 24.Ag4,bG-f8; 25.Ad7,Dd7; 26.g4,f5; 27.bG-f1,f4; 28.Ac5,Zc5; 29.Zf3,Af6; 30.g5,Ae7; 31.Gg2,Gh7; 32.h4,Eg7; 33.Zd1,fG-h8; 34.Zf2,Dd8; 35.Zg4.

Ikus koadroa. Ederki prestatu dute posizioa beltzek. Orain ausardia behar da egoera apurtzeko. Baina beharrezkoa da, eta dena horretara zuzenduta egon da. 35...Gh4; 36.Zh4,Gh4; 37.Gf3,Ag5; 38.Zf2,Af6; 39.Gg4,Dd7; 40.Gh4,Ah4; 41.Zd3,Zd3; 42.Gd3,Dg4 xa; 43.Dg2,Ag3; 44.Df3,Df3, Kalkulo kontua izan da. Beltzek badakite posizio horretan nagusitasuna beraien dela. 45.Gf3,g5; 46.Eg2,Eg6; 47.Gf1,Eh5; 48.b4,b4; 49.Gb1,g4; 50.Gb4,Ae1; 51.a5. Txurien azkeneko ahalegina. Baina beltzek arazorik gabe indargabetuko dute. 51...f3 xa; 52.Ef1,Ab4; 53.a6,g3; 54.a7,g2 xa; 55.Ef2,Ac5 xa; 56.Ef3,g1=D. Matea galarazteko (Dg4,edo Df2) erregea jokatu behar dute. Ondorioz, peoiaren lasterketa alferrikakoa bihurtuko da. Txuriek beren zuhurgabetasuna ordaindu zuten.

Euskal Stultifera Navis

Stultifera Navis, Zoroen Itsasontzia, Erdi Aroko sinbolo bat da, maiz aski agertzen direnetariko. Funtsean, bidaia hutsaren esanahia du, nora joanik ez duen bidaia. Bidaia egindakoan, bidaiari bere holan segitzen dute, ez dute inongo bilakaerarik jaso. Ebuluzioaren kontrako sinboloa, beraz.

Itsasontzi baten bidez azaltzen ohi zen, non munduko plazer guztiek bidaiatzen baitzuten. Horrez gain, itsasontziaren kapitaina andre bilutzi bat zen, baso aunitz ardo edonon lagata izaten ziren, eta mahats ederrek lema inguratzuten zuten.

Ehiztaria ere helmugarik gabeko sinboloa da. Bere harrapa-

kinaren bila doa eta nahi gabe, labirinto anitzetan barneratzen da, ekintza hutsaren labirintoan, errepikapenen labirintoan, eta gauza iragankorren eskuratu nahien labirintoan. Lao-Tsek esana da ehizak eta lasterketak gizabihotza erotzen dutela, etsaia barnekoa, gure baitan baitaramagu: desioa. Dionisio, Ehiztari Nagusia, desioen ezinezko mugaren sinbolo da. Arabiarrek bat egiten dute hiru elementu hauek: ehiztaria, haizearen orrua eta herioa.


Eta euskal mitologian ere ehiztari madarikatuaren tokiko bertsoioa dugu: Abaderen txakurrak. Abade bat, ehiztari amorratua, mezatan ari zelarrik, erbi bat eliza-

Artzaina goizean goiz jeikitzen da artaldeari goizeko janaria emateko. Jaten ari diren bitartean, lasai daudenean, deizteko aprobetxatzen du.

Aldi batean denak deitzen ditu eta gero badaezpada birpasatu egiten ditu esne guztia deitzi ahal izateko. Bi alditan deiztearen arrazoia hau da: lehenengoan esne gehiena kentzen dio anrdiari eta bigarrenean, bi aldiren bitartean dagoen zati horretan esnea jeisten uzten du. Deitzi ondorean laister hozten jartzen da, esnea mintzen duten xamorroak hiltzeko, gero gasna egin ahal izateko. Gasna egiteko bi modu daude, garrantzitsuenak: eskuz eta makinaren bidez.

Lehen dena eskuz egiten zen. Modu hau gehienbat lehen erabiltzen zen baina orain ere, oraindik erabiltzen da. Esnea 30 gradutara iritsi arte berotzen uzten da kuprezko pertza batean. Ondoren gatzagia botatzen zaio. Mamia egin arte uzten da, behar den denboran. Mamia egin a dagoenean ezpel adar batez edo basoaz nahasi egiten da mamia hausteko, eta hau egiteko esnea berriro berotzen da, 40 gradutara iritsi arte. Ondoren 30 minutuz uzten da pausatzen matioa behean gelditu arte. Gero, egindako masa moztzen da, egin behar den gaztaren tamainuaren arabera. Zortzea izeneko egurrezko lamina borobil batean sartzen da gaxura kendu ahal izateko, eta zortzearen azpian zortzepekoa jartzen da gaxura ontzi batera bideratzeko eta aldi berean gasna zapaldu ahal izateko. Hasieran goitik

Gasna



Itziar Hualde

(BARAÑAIN)

ateratzen den gaxura kolorega da. Txurixka ateratzen hasten denean zapaltzearekin uzten zaio, txurixka ateratzean gasna galtzen ari dela esan nahi baitu.

Zapaldu ondoren zupazter ondoan uzten da eta ondoren gaimetik gatza botatzen zaio eta lehortzen jartzen da.

Orain berriz garbitasun kontrol handiagoa dago, eta horregatik eskuz egin beharrean makinaz egiten da. Esnea berotzeko ur bainuan jartzen da temperatura konstante batean geldidakin. Esnea lehengo moduan bezala 30 gradutara ailegatu arte berotzen da. Gatzagia botatzen zaio eta mamia egiten

uzten da 30 minutuz.

Gero lira batez moztu egiten da gaztagilearen ohiuraren arabera. Horren ondoren nahasi egiten da, berriz berotuz. 37 gradutara iritsi arte. 37 gradutara dagoenean nahasten jarraitzen da gaztagileak nahi duen denboran zehar. Normalean ordu bat inguru izaten da. Ondoren txapa batzuetan bildu eta pisua gainean jartzen zaio hamar minutuz.

Bildu a dagoenean moldetara sartzen da. Bost orduetatik hamar orduetara bitartean moldean egoten da, zapalduta, 21-27 gradutako azidotasa izan arte, gutxi gora-behera. Moldean 19 gradutako lohi batean egon behar du.

Gaxura ongi kendu ondoren gatzitutako ura dagoen ontzi haundi batera sartzen dira gasnak. Hor hamabi orduz egoten da gero kamar batzuetara sartu arte.



JUANTXO URDIROZ

ra bertaratu zen. Abaderen txakurrak zaunkaka hastean, abadeak Hostia Bedeinkatu utzi eta erbia- ren bila abiatzen da. Horren ondorioz eta hori bera zigortzeko, finik gabeko abiada biziko lasterketa batean murgildu zen, eta hor dugu, oihanetan barrena, txakurren gibeletik.

Juan Eduardo Cirlot-en ustez, Erdigunearen uzte eta Gurpil Eroaren sartze-prozedura dauka euskal alegiak. Mugimendu antzua, beraz.

Beste kulturetako zenbait bertsoitan erbia deabrua bera mozzoratua izaten ohi da. *Ehiztari Beltza, Ehiztari Gaiztoa, Erregaren txakurrak* izena dute ipuinek beste tokitan.

Hau dena kontuan hartuz, irakurri bedi Aita Donostiak Sakanan jaso zuen kantu zahar hau:

Bonbolontena, nere laztana / ez egin lorik basoan, / aizeritxuak (Ehiztariak) eramango zaitu / erbia zarrelakoan. Bo!

Edota Atxagaren poema hau:

Hala esaten duzu: / Beste lur beste itsaso batera joango naiz / eta ziutate hobeago bat auzkituko dut benetan, / ze nere auzilegin guztiak kondenuatuak baitaude hemen / eta nere pentsamendua bezala / hiltzen baita nere bihotza makaldade desolatu bitan. (...) / Ez duk aurkituko beste itsaso ez beste lurrik, / ziutatea hirekin joango duk beti. Betiko kaleetara itzuliko haiz. / Suburbio berdinetan helduko zaik edadea, / ze, ziutatea berbera baita beti. Etzak besterik bilatu. / Etezegok. / Ezta hiretzako bide edo barkurik ere. (...)



Ez usteak zure atean joka

Zoroen Itsasontziak bidaia hutsaren esanahia du, nora joanik ez duen bidaia.

Etxarri-Aranazko Andra Mari Ikastolaren 25. urteurrena ospatuko da asteburu honetan herrian. Nafarroako zaharrena, ia berarekin batera sortu ziren Elizondo, Tafalla, Lizarra eta Iruñerriko Paz de Ziganda eta San Fermin. Hamabi haur hasierako gela hartan, egun 400 pasatxo dira, eta 16 urte bitarteko irakaskuntza emateko predikamendu guztiak dituzte. 25 urteren buruan.

Andra Mari Ikastolak 25 urte

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Hasiera beste askoren antzeko izango zen. Herri euskalduna, haur euskaldunak, guraso euskaldunak, eskola erdalduna. Katea liburu eta orbelen aurrean —indartu behar zenean— apurzen den sentsazioa. Gipuzkoa eta Bizkaitik datozen hotsak, eta pare bat lagun —nahikoa zen orduan bi lagunekin— ausart samarrak. Irakaskuntza ere euskaraz eman behar dela, aizu! Orduan guraso batzuk aukeratu, semeak eskatu, borondate oneko andereño edo umekin ondo moldatzen den andraren bat bilatu, eta ia gela bat okupatu. Ia hasiera guztiak berdintsuak izango ziren. Lan eta lan eta etorkizun iluna. Urte asko iragan eta gero, ehundaka haur, hainbat promozio, eta batzuek eraikina eta guzti (Oinez zorionekoei esker). Urrunak dirudite garaiek, baina oraindik badaude horrelako trantzetan daudenak.

Ez zen gogorragoa, halabeharrez, hasierakoen esperientzia, baina haiei zor zaie bidea zabaldu izana. Nafarroa osoan Olaztioko haur eskola izan zen lehendabizikoa, baina ikastola bezala Etxarri-Aranazko Andra Mari dauka marka. 1969ko irailean martxan hasi zen, estreinako aldiz Nafarroan. Hurrengo urtean gehituko zitzaizkion Elizondo, Tafalla, Lizarra eta Iruñerriko San Fermin eta Paz de Ziganda zentroak. Denek izan dute bilakera aski desberdinak, baina, orokorrean, poztekoa da emaitza, bistan denez.

HASIERAN DOZENA BAT HAUR

Etxarrin mojek zuten sasi eskola bat, euskara orduz kanpo ematearren Diputaziotik dirua jasotzen zuena. Han bazen Sor Idoia izena zuen moja, dena mugitu zuena, eta hor sortu zen ikastolaren hasiera izango zen haur taldea. 1969an Juan Mari Artieda eta Pello Lizarraga herrikoak buru-belarri hasi ziren andereño eta gela bila, Sor Idoiak herria utzi behar izan baitzuen. Diputazioko Principe de Viana erakundean sartu berria zen Jorge Cortes jaunari esker, Iruñetik ekarri zuten lehen andereñoa, Arantxa Langara, eta eskola zaharrean bilatu zuten gela. Hamabi ziren lehen haurrak. Ez zuten inolako agiri ofizialik, errezeloz begiratzen zituzten herrian, eta hotzak ziren neguan, hain segur. Andereñoak ozta-ozta kobratzen zuen etxea ordaintzeko, eta berak bilatu eta itzuli egin behar zituen

testuak. Gurasoek ordaintzen zuten, eta mailegu eta laguntza esker aritzen ziren alde batetik bestera, etengabe.

Egun 433 haur dira, 16 urte bitarteko irakaskuntza emateko ofizialtasun guztia dute Diputazioan, eta onarpen erabatekoa herrian. Egun, Etxarrikoak ezezik, Bakaikutik hasi eta Ihabarrerrainoko haurrak ere biltzen dira bertan. Lakuntza eta Arbizun oraindik badira eskolaurreak, baina haurren matrikulazio kopuruaren murrizketak beste herrietakoak ixtera behartu zuen duela zenbait urte.

ASTE BURU EDERRA OSPATZEKO

Hogeita bost urte horiek ospatzeko eta bidean lagundu duten guztien aldeko omenaldia egiteko prestatu dute, hain zuzen, festa ederra asteburu honetan Etxarri-Aranatzen. Larunbatean, arratsaldeko 7etatik aurrera buruhandi eta erraldoiak izango dira, eta baita txistorrada



'Arkatz' logotipo berria.

Egun, Etxarrikoak ezezik, Bakaikutik hasi eta Ihabarrerrainoko haurrak ere joaten dira Andra Mari ikastolara.



Ikastolako sortzaileak eta lehen andereñoa. Goian, gaurko eskola.

eta Bartzelonatik etorritako dantza talde baten emankizuna ere. Ondoren, gaueko hamarretan, herri kirolak izango dira pilotalekuan. Igandean, goizean goiz hasiko dira ospakizunak, hamarretan Andra Mari baselizan egingo den mezarekin. Meza Eugenio Ulaiar apaiza zenaren omenez egingo da, laguntzailea izateaz gain, bere liburutegia utzi baitzion ikastolari. 11.30etan,

700 kiloko oroitarriaren bedein-kapena egingo da, eta trikitixak, txistulariak eta txarangak aritu ondoren, haurrentzako jokoak eta dantzarien emanaldia izango da herrian. Hiruretan bazkaria izango da Udal pilotalekuan, eta ondoren lehen andereño, guraso eta ikasleei omenaldia egingo zaie, bereziki 25 urteotan hil diren Jose Mari Martinez de Esteban, Iñigo Villarroel Karasato-

re, Oihan Garmendia Arruabarrera eta Roberto Etxeberria Zubeldia ikasleei.

Eta egun honetan geldi ez dadin, ikastolaren historia biltzen duen liburuxka ere argitaratu da. Art & Maña taldeak egina, bertan biltzen dira 25 urteotako pasadizorik aipagarrienak, eta bere historia bertso moduan dago-jasoa. Horretarako Manu Gomez bertsolaria eta Sakanako Bertso Es-

kolaren laguntza eskatu zuen ikastolak, eta hauek Jesus Atxa ikastolen historia biltzen ari denarekin egin dute lan. Halaber, Joseba Beramendi ikastolako ikasle ohiak logotipo berria sortu du, eta 'Arkatz' izena duen pertsonaiaren bidez ikastolako seinalizazioa eta izkribuak osatuko dira. Aurrerantzean, 25 urte iraun duen talde honen ikur gisa erabiliko da.

«Elkarrizketak egin nahi ditut»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Gaizka Aranguren aparra bezala igotzen diren horietakoa da. Sadarretik Gaur Egun-era daraman bide luzea urrats bakar batez egin zuen. Egun, beste aurrerapauso bat eman berri du, hain zuzen ere udan albistegietan aritzetik kultur saio bat aurkeztera daramana. Izan ere, hemendik aurrera Iparra saioa aurkezle izanen da Gaizka Aranguren.

EGUNKARIA.— Nola sentitu da zu bezalako nafar bat Gaur

guztiarekin.

EGUNKARIA.— Eta nola sentitu da zu bezalako 27 urteko gazte bat albistegietako kameraren aurrean 40 urteko gizon baten irudia ematen?

ARANGUREN.— Ni ez naiz horretan gaizki sentitu; izan ere, betidanik esan da adinak telebistan sinesgarritasun a ematen duela. Ikusi besterik ez dago telebista kate gehien-gehientsuenetan, guztietan ez esateagatik, informatiboetako aurkezleak jende heldua izaten direla. Berrogei urtetik gorakoak izaten dira gehien-ge-

dugu zein tratamendu ematen zaion Nafarroari eta Iparraldeari. Hori pixka bat nire arduraren hartu dut. Iparraldeko hiru herrialdeei eta Nafarroari buruzko ekimen kulturaleri buruzko erreportaien proposamena nire esku dago. Horiei egiten zaien jaramona kontuan hartuz, eta saioaren arduradunek agintzen dutenaren arabera ikusiko dut. Oraingo ezin dezaket gauza handirik esan.

EGUNKARIA.— Zein neurritan markatzen du aurkezleak saioaren iparra?

ARANGUREN.— Aurkezle ba-

ez bezala aurkezleak daukako, batetik, eta sail zehatzak jarri nahi direlako, bestetik. Lehenengo eta behin, berri kulturalak bata bestearen atzean eskainiko dira, labur samarrak, gero erreportaiak sakonagoak beste atal batean, elkarrizketa bat hamar minutuko, agenda hurrengo zazpi egunetako ekimen kulturalen berri emanik jendeak nahi duena aukera dezan, eta liburu gomendioa, astero-astero liburu bat edo bi gomendatuko ditugu.

EGUNKARIAK.— Bi Iparra izanen ditugu, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Zeintzuk izanen dira bion arteko ezberdintasunak?

ARANGUREN.— Hizkuntzaz aparte badago desberdintzen dituen gauza bat oso inportantea, denbora. Euskarazkoa joan den asteartean egokitu zen lehenengo saioa, eta espainolezkoa bihar, larunbatean, eskainiko da. Denbora tarte ikaragarria dago tartean, eta horrek zailtasunak ekar ditzake.


Beste alde batetik ere, espainolez bakarrik aritzen den elkarrizketatu bat ez da oso egokia, zeren bikoizketa egin behar da euskarara. Euskalduna bada gehienetan elebiduna izaten da —gehienetan, Iparraldeko gutxi joaten ari direlako, nahiz eta saiatuko garen gehiago eramaten—.

EGUNKARIA.— Hitz joko errazekin jarraituz, Iparra al da zure ipar profesionala? Hau da, programa kulturalak egitea al da benetan gustatzen zaizuna?

ARANGUREN.— Lehenengo eta behin, ez dakit. Baina nolahi ere momentu honetan gustukoena izanen litzateke elkarrizketa saioa egitea, informazio arloko elkarrizketa saio bat eta era guztietako jendea elkarrizketatu ahal izatea.

EGUNKARIA.— Ba al dakizu Jose Maria Garciak behin galdera horri erantzun berbera eman ziola?

ARANGUREN.— Ez nekien hori, ez...



Gaizka Aranguren, Guliako etxean.

JOXE LACALLE

Egun bezalako albistegi batean?

GAIZKA ARANGUREN.— Nafar bat Gaur Egun-ean ezin da oso ongi sentitu, han ematen diren berriak Euskal Autonomi Elkarteari mugatuta daudelako gehien-gehienetan. Ondorioz, nafar batek garrantzitsutzat jo ditzakeen zombait berri ez dira ematen, edo ematen zaien tratamendua ez da nik emango niekeena. Azken finean, Euskal Telebista Euskal Autonomi Elkarteako telebista da, eta hori argi eta garbi uzten dizute han. Ondorioz, horri heldu behar diozu edo bertzenaz zure ezadostasuna agertu, horrek erran nahi duen

hientsuenak. Normalean adin handiagokoa ematen baldin badut, nik badakit horrela jantzita eta makilatuta askoz ere gehiago ematen dudala. Dena dela, horrek lagundu egiten dit profesionalki, nahiz eta gero ez horrenbeste bizitza pribatuan.

EGUNKARIA.— Sentimenduekin jarraituz, nola sentituko da zu bezalako gazte nafar bat Iparra bezalako kultur saioa batean?

ARANGUREN.— Ikusteke dago nola sentituko naizen. Saioak erritmoa hartzen duen heinean —zeren hasierako saioak izaten dira beti martxan jartzeko modukoak— ikusiko

tek beti ematen dio pertsonaltatea, hori diote behintzat. Jendeak saio bat ikusten duenean eta aurkezle bat baldin badu saio horrek, berehalaxe jendeak identifikatu egiten ditu saioa eta aurkezle hori. Nahiz eta horrela ez izan, zeren eta beste jende batzuk baitaude lanean, eta beharbada nik baino askoz ere lan gehiago egiten dutenak, jendeak ni identifikatuko nau horrekin. Beraz, ardura hori nere gainean izanik, Iparrak eskatzen duenari egokitzea tokatuko zait.

EGUNKARIA.— Zer berri eskainiko du Iparra berri honek?

ARANGUREN.— Egitura erabat berria dauka saioak, lehen

Gaizka Aranguren

AURKEZLEA



SOSLAIA

Nafar kutsua

Euskadi Irratian gorritxoaren kemenaren berri emanez egin zituen lehendabiziko urratsak kazetaritzaren munduan Gaizka Aranguren, 27 urteko iruinsemeak. Handik gutxira Sadarretik telebistara egin zuen salto, eta azken bi urte hauetan hortxe izan dugu, afaltzen dugun bitartean telebistaren beldetik hala mundu zabalean nola Euskal Herrian bertan egunean zehar gertatutakoaren berri ematen. Berari esker, nafarrok inoiz baino gertuagoak sumatu ditugu Gaur Egun-ak, gainontzeko esatariek ez bezala nafar kutsu nabaria eman baitie albistegiko berriei.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

